



LIBURUTEGI NAGUSIA
BIBLIOTECA GENERAL

LIBURUTEGI NAGUSIA
2018KO MEMORIA

2018

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

01/ Giza baliabideak

Zerbitzuko arduraduna: 1

Arloko arduraduna: 1

Liburutegiko Goi-mailako teknikariak: 4

Liburutegiko Erdi-mailako teknikariak: 2

Liburutegiko administrariak: 2

Mandatarari mendekoa: 1

Kanpoko bi kontrataren laguntza izan da EUSTATEko eta Kultura Ondareko funtsak prozesatzeko.

02/ Lokala, instalazioak eta ekipamendua

225 m²-ko irakurketa gela, honako hauek dituen: 18 irakurketa-leku, Interneterako sarbidea duten 4 ordenagailu, inprimagailu bat, fotokopiagailu-digitalizagailu bat, mikroformen irakurgailu-erreproduzigailu bat (papera eta digitala). Apirilean irakurgelako errotulazio guztia aldatu zen.

144 m²-ko lan-gela.

3 biltegi Lakua II-ko 2. sotoan, armairu trinkoekin: A biltegia: 283m², C biltegia: 322 m² eta D biltegia: 156 m².

25 m²-ko gela bat Lakua II-ko 1. sotoan, telebista-monitore batekin eta bideo-erreproduzigailuarekin.

Liburutegi osoaren apalen metro linealak, guztira, 6.880 dira.

Liburutegiaren kudeaketa osoa AbsysNet programarekin egiten da. Programa hori erabiltzen dute Bibliotekak Sarearen barruan dauden Eusko Jaurlaritzako sailtako liburutegi guztiek; hain zuzen ere, sare horren buru da Liburutegi Nagusia.

03/ Zerbitzuak eta jarduerak

Liburutegiaren zeregin nagusia Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek informazioaren aldetik dauzkaten beharrianak betetzea da; horretarako, monografiaren eta erreferentzia lanen 87.763 ale eta argitalpen seriatuen 3.936 izenburu dauzka, datu-baseen (13) eta aldizkari elektronikoen (87) harpidetzez gain.

03.1. ESKURATZEAK

Funtsak eskuratzeko Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren, Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Lehendakaritza Sailaren aurrekontu-partidak erabiltzen dira. Era berean, aipatu diren sailtako administrazio bulegoetan erabiliko diren liburuen eskuratzeko kudeatzen ditu. Katalogoko izenburuen kopurua trukeen bidez edo beste erakunde batzuen eta partikularren dohaintzen bidez ere handitzen da.

Sartutako monografiak, guztira: 1.175

Eskariak 1.190

Jasotakoak 1.175

Ezeztatuak 15

Fakturatuak 602

Kosturik gabe 575

Hemeroteka: 16 aldizkariaren harpidetza egin da; horietatik 5 paperezko aldizkariak dira, beste 5 elektronikoa eta beste 6 bi euskarrietan daude (papera + linean).

Jurimetría datu-basera harpidetza egin da.

03.2. KATALOGAZIOA ETA PROZESU TEKNIKOA

Monografiaren 2.815 izenburu prozesatu dira.

Hemerotekan 6.493 ale sartu ziren.

Monografiaren 1.175 sumario digitalizatu dira.

Espazio falta dela eta, irakurgelan zeuden funtsen parte bat birkokatu behar izan da.

Araubide Juridikoko liburutegiaren integrazio prozesuaren ondorioz, 41 aldizkari-izenburu sartu dira, beste 52 aldizkaritako ale solteez gainera. Eta Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren liburutegitik 14 aldizkaritako ale solteak sartu dira.

EUSTATEko liburutegiko funts bibliografikoak berriro katalogatzeko eta horiek Bibliotekak Sarean sartzeko laguntza teknikoak (2018ko irailtik abendura), 6.811 erregistro bibliografiko berrikusi ditu, eta horietatik 755 monografia-izenburu sartu ditu funtsean.

EUSTATEko funtseko aldizkariaren izenburuekin datu-base bat ere egin dute.

Liburutegiak Kultura Ondarearen Zuzendaritzak kontratatu zuen laguntza tekniko koordinatu du (azaro-abendua), aipatutako zuzendaritza horretan sartu diren dokumentu berriak Sareko katalogoan katalogatzeko. 1.024 dokumentu prozesatu dira.

03.3. AZALEZTATZEA

2018an argitalpen batzuk azalezatzeko 5.683,20€-ko aurrekontua onetsi zen; hona hemen argitalpen horiek: El Mundo (gure liburutegiak kontserbatu behar du, Euskal Prentsa Digitalizatzeko Partzuergoaren akordioa dela bide) eta aldizkarien beste 9 izenburu. Guztira 134 liburuki izan ziren.

03.4. MATERIAL BIKOIZTUEN ESKAINTZAK

Liburutegiak monografiak kopien bi eskaintza egin zituen.
1. eskaintzan (maiatza) 400 izenburu eskaini ziren, eta 189 bidali ziren 21 erakundetara. 2. eskaintzan (urria) 400 izenburu eskaini ziren, eta horietatik 125 bidali ziren 15 erakundetara.
Eta aldizkarien kopien eskaintza bat (otsaila): 85 izenburu eskaini ziren (303 ale), eta horietatik 102 ale eskatu zizkiguten 10 erakundek.

03.5. MAILEGUA

Erabiltzaileak

Liburutegiak 4.376 irakurle dauzka alta emanda. Sare osoaren erabiltzaileak dira. Urtean 290 alta egon dira, eta horietatik 79 Liburutegi Nagusikoak izan dira.

Maileguak: 1.309
Itzulketak: 1.311

Liburutegien arteko mailegua

Liburutegi arteko 19 mailegu kudeatu dira, bai Jauraritzako langileek eskatutakoak, bai Jauraritzatik kanpoko liburutegiek eskatutakoak.

03.6. ERREPROGAFIA ZERBITZUA IRAKURKETA-GELAN

Guztira: 10.253 orrialde. 1.500 paperean eta 8.753 digitalizazio.

03.7. DOKUMENTAZIO ZERBITZUA

Dokumentazio eskariak

2018an, 139 informazio eta/edo dokumentazio eskari ebatzi dira.

Dialnet

2018. urtean zehar DialnetPlus Zerbitzuak aldizkarietako artikuluen edo monografiak kapituluak 1.817 eskari jaso ditu, hilean batez beste 151,42 eskari. Erantzuteko batez besteko denbora, hau da, erabiltzaileak eskaria egiten duenetik dokumentua bidaltzen den arte igarotako denbora,

1,62 egun da. Eskatzaileak, guztira, 161 izan dira, horietatik 93 emakumeak dira eta 68 gizonak. 2018an, 42 erabiltzaileri eman zaie alta (32 emakume eta 10 gizon).

Dokumentuak aurkitzeko, eskariak egin diren aldien % 21ean (386 eskari) Jaurlaritzatik kanpoko liburutegietara jo behar izan da, batik bat unibertsitateetako liburutegietara. Interneten % 8 aurkitu da (137 eskari). Gainerako eskariak (1.294, % 71) Eusko Jaurlaritzaren liburutegietan ebatzi dira.

Liburutegi Nagusiaren webgunetan albisteak argitaratzea

2018an 7 prentsa-txosten egin dira, 14 egunkariren edizio digitaletako kultura ataletatik aukeratutako 43 albistekin, guztira.

03.8. SARE SOZIALETAN PARTE-HARTZEA: TWITTER

Liburutegi Nagusiak 2018an 1.033 txio argitaratu zituen. Jarraitzaileen kopuru osoa: 769.

03.9. NOBEDADEAK ETA BIBLIOGRAFIA ERAKUSKETAK

Hilabete hasieran, irakurketa-gelan, sartu diren nobedadeak kontsultatzeko apalategia eguneratzen da, eta buletin bat argitaratzen da.

Hiru bibliografia-erakusketa antolatu dira:

- 39/2015 eta 40/2015 legeak
Martxoaren 19tik ekainaren 15era arte
- Euskal Herrian zehar
Ekainaren 18tik irailaren 21era arte
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna politika publikoetan
Irailaren 24tik abenduaren 14ra arte

03.10. BIBLIOGRAFIA BULETINAK eta IHS

Espezializatutako IHSak, aldizkari-zenbaki berriak jasotzen diren bakoitzean erabiltzaile-talde mugatu bati bidaltzen zaizkio, eskatu ahala:

IHSak: Revista Contable, Revista de Derecho de la Competencia y de la Distribución, Revista de Gestión Práctica de Riesgos Laborales, Revista de Sociedades Cooperativas, Revista ICADE, La Ley Unión Europea, Actum Social eta Actum Tributario. Guztira 98 buletin bidali dira.

Uztailean Nobedadeen Hautapen Buletin berria jarri zen abian. Hilean bi aldiz agertzen den buletina da, Liburutegi Nagusiaren azken eskuratzeen hautaketa bat jasotzen duena, gaiaren arabera antolatuta.

Uztaila eta iraila bitartean EAEko Administrazio Orokorreko langile guztiei bidali zitzairen buletin hori eta, urritik aurrera, jasotzen jarraitzea eskatu zutenei bakarrik, 794 pertsona.

03.11. BESTE JARDUERA BATZUK

- WEB orria eguneratzen da
 - Euskaraz: <http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-767/eu/>
 - Gaztelaniaz: <http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-767/es/>
- Dinamizazio jarduerak: Liburuaren Egunean, bikoiztuta edo baztertuta dauden aleak eskaini dira irakurketa-ge-lako atean; antzeko eskaintza egin zen urte bukaeran.
- Liburutegia Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuarekin elkarlanean aritzen da; honako hau egiten du:
 - Bibliotekonomia arloko aholkularitza.
 - Aurre-argitalpenen berrikuspena.
 - CIP fitxa eta argitalpenen katalogazioa.
- Dialnetek, DialnetPlusera harpidetutako erakundeei be-ren erakunde orrialdea aktibatzeke aukera ematen die. Orrialde horrek, erakundearen Argitalpen Zerbitzuaren argitalpen-produkzio guztia (liburuak eta aldizkariak) eta Dialneten dagoen bere egile afiliatuen produkzio akade-mikoa biltzen ditu. Informazio guztia bildu eta era antola-tuan azaltzen da.

Liburutegi Nagusiak proiektua aurrera ateratzea erabaki zuen eta otsailean Eusko Jaurlaritzaren erakunde orrialdea aktibatu zen.

Lehenengo fase batean aurkezpen orrialdea zehaztu zen, honako informazioa barne hartzen zuena: helburuak, harremanetarako datuak, telefonoa, posta elektronikoa, web-orrialdea eta irudi korporatiboa. Bigarren fase batean, Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde autonomoetako egile afiliatuekin lan egiteari ekin zitzaion, eta urtean zehar beren profilak eguneratzeko laguntza eskatu zitzaion funtzionarioei.

- EJI Erekin batera administrazio-bulegoetarako material bibliografikoaren erosketa eskaerak egiteko aukera eman-go duen aplikazioaren sorkuntza diseinatu da, “Desiderat-ak” aplikazioa. Aurreikuspenen arabera, 2019ko hasieran jarriko da abian.

03.12. PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Liburutegi Nagusiaren 2018ko plangintzan Eusko Jaurlaritzako erabiltzaileei zuzendutako Dialneti buruzko formakuntza-ikastaroak antolatzea erabaki zen. Otsaila eta martxoa bitartean ordu eta erdiko iraupena izan zuten 5 saio egin ziren. Bi saio berdintasun teknikarientzat berriazkoak izan ziren, eta beste bat Lehiaren Euskal Agintaritzako langileentzat. Guztira 70 pertsona joan ziren.

2018ko urtarrilean DialnetPlusi buruzko berriazko saioa antolatu zen Eusko Jaurlaritzako liburuzain guztiei zuzendua.

03.13. LANGILEEN PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

Hiru teknikari euskarazko prestakuntza egiten ari dira (Elebi); Dialneten testuak euskarara itzultzen ari dira

04/ Bibliotekak Sarea

2011n eta 2012an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko liburutegiek eta dokumentazio-zentroek katalogoak bateratzeko lana egin zuten; emaitza gisa, Bibliotekak katalogo kolektiboa sortu zuten. 2018. urtean Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearekin bat-egitea planteatu da. Prozesu hori 2019. urtean zehar gauzatzea aurreikusten da, eta hori optimizatzeko zenbait bilera egin dira.

Liburutegiak, eta bertako langileek, zerbitzuak eta prozesuak hobetzeko sortutako hainbat lantaldean parte hartzen dute; hona hemen lantalde horiek: Eskuraketa eta Zirkulazio Taldea, Autoritateen Taldea, Seriatuen Taldea, Katalogazio Taldea, Opac eta WEB Presentzia Taldea, SharePoint Taldea, Aliantza Taldea, Errepositorio Taldea, Legesarea Taldea, Artikuluaren Banaketako Taldea. Bibliotekak Sarearen urteroko bileran, urtarrilean egina, Sarearen jarduera jasotzeko eta aztertzeko talde berri bat sortu zen, Estatistikak Taldea.

Liburutegia LEGESAREA lantaldearen barne dago eta 2018. urtean zehar Zuzenbide-informazio Eguneroko Buletin Elektronikoa egin eta bidali du 8 astetan zehar.

Liburutegi Nagusiak koordinatu egiten du Bibliotekak Sareko Autoritateen katalogoa arazteko proiektuan lanean ari den pertsona. 2018 osoan erroreak eta bikoiztuak desagerrarazteko eta nahikoak ez diren sarrerak osatzeko lana egin da. Kongresu Entitateen sarrerekin egin beharreko lana amaitu da, eta lizenburu uniformeen sarrerak berrikusteari ekin zaio.

2018ko urtarrilean, Bibliotekak Sarearen bileran, Liburutegi Nagusiaren postontzian jasotzen diren DialnetPlusen eskatutako artikuluen horniketa aldatzea erabaki zen. Horren ondorioz, 70 birbidaltze egin dira, beste horrenbeste eskaerari dagozkienak.

Aipatutako bilera horretan, IVAP, Hezkuntza, Industria, Nekazaritza, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia eta Emakundeko liburutegiek, beren aldizkariak Absysnet-en katalogatzeko konpromisoa hartu zuten, harpidetza horiek Dialneten sartu ahal izateko. Egun Eusko Jaurlaritzako liburutegietako 354 harpidetza daude markatuta.

05/ Kanpo-lankidetzaz

1991z geroztik euskal liburutegi batzuk elkarlan-proiektu bat abian jartzea planteatzen hasi ziren, beraiek eskuratzen, zerbitzatzeko eta biltegitratzen duten eguneroko prentsa kontserbatzeko. Beren instalazioetako biltegitan egunkariak paperean zaintzeko behar den espazio handiaren arazoa konpondu nahi da, eta aldi berean, babeskopia bat lortu, jatorrizkoak galduz gero informazioa ahalik eta modu fidelean eskuratzeko modua bermatzeko. Gaur egun, proiektuak aurrera jarraitzen du, hamar liburutegiren esku; horien artean, Liburutegi Nagusiak *El Mundo* egunkaria kontserbatzen eta azaleztatzen du paperean, eta beste 11 izenburu euskarri digitalean.

Liburutegi Nagusiak BILGUNEA katalogo kolektiboan parte hartzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat erakundek –publikok zein pribatuk– osatzen duten katalogo hori Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sustatzen du.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA PUBLIKO
ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019